

LOREAREN ORDENAGAILUA

Birus bat sartu zitzaionetik, gero eta harroago zegoen Lorearen ordenagailua, gero eta handiputzago. Egun batean, zera esan zion Loreari:

- Hemendik aurrera, nirekin hitz egiteko, enperadorea esan beharko didazu.
- Enperadorea? Bai eroa, ordenadorea! - erantzun zion Loreak haserre.

Baina ordenagailua ez zen txantxetan ari. Harro-harro eginda, munduko enperadorea izan behar zuela erabaki zuen, eta lortzeko asmoz, lanean hasi zen. Lehenengo eta behin, munduko ordenagailu guztiak bere mende jartzeko programa egin zuen. Ondoren, aginduak ematen hasi ziren.

Semaforoekin hasi zen: munduko semaforo guztiak kontrolatzen zituzten ordenagailuei koloreak aldatzeko agindu zien. Esan eta egin, kolore berdea gorri bihurtu zen eta gorria berde, eta munduko errepide eta hiri guztiak hankaz gora jarri ziren bat-batean.

Ondoren, hegazkinek lur hartzeko erabiltzen dituzten ordenagailuetan, aireportuak ezabatu zituen. Milaka hegazkin airean gelditu ziren noraezean eta nahasirik: batek hondartzan eguzkitan zegoen gizon baten bizkar zuria ikusi eta, aireportua zelakoan, hantxe lur hartu zuen.

Gero, munduko banku guztietako ordenagailuei dirurik ez emateko agindu zien. Jendea bere dirua ateratzera joan eta bankuan hau esan zioten:

- Sentitzen dut, baina ez duzu batere dirurik.

1) Erantzun

a) Zergatik erotu zen Lorearen ordenagailua?

b) Zertarako zen ordenagailuak sortutako programa?

2) Zer-nolako aginduak eman zituen Lorearen ordenagailuak?

Lehenik,_____

Ondoren,_____

Gero,_____

3) Ordenagailua birusak jota dago eta mezua nahasi du. Kopiatu zuzen.

Nork: Mundukobankua@sare.net

Nori: Jendeari sosik ere ez

Zer: RAM I Enperadore@aizu.com

Nire agindua beteko duzuelakoan,

Utzi dirua banatzeari. Jendeari sosik ere ez!

Mendeko ordenagailu zaretenoi:

Ni Lurrean inoiz izan den ordenagailurik ahaltsuena naiz. Eta nire botere handia dela erakutsi nahi diet gizakiei. Horregatik, agindu hau ematen dizut:

RAM I Enperadorea

Nork: _____

Nori: _____

Zer: _____
